

4. DIRU SARREREN FLUXUA

Bizikletan egingo dugun inbertsioa kontuan hartuta, eta horri esker establezimendu edo etxe askok energia erabiltzeko aukera izango dutela kontuan hartuta, **1.500 euroko prezioan salgai jartzea** pentsatu dugu. Hasiera batean, 10.000 bizikleta aterako ditugu merkatura, eta guztiak salduz gero, guztira 15.000.000 euroko diru sarrera edukiko genituzke. Beranduago costuen egituran ikusiko dugun moduan gure **urteko kostu totalak 4.459.870 €** izango dira. Beraz, gure urteko irabaziak 10.540.130 € izatea espero dugu.

Hala ere, gure produktua aurrera atera ahal izateko, diru-inbertsio handia behar dugu. Horretarako, honako gauza hauek egingo ditugu:

- **Inbertsoreak** lortuko ditugu, produktua aurkezteko gala bat antolatuko dugu, eta inbertsore posible guztiak gonbidatuko ditugu, gure produktua haien aurrean azalduko dugu, eta honekin lor ditzakegun lorpen handiak azalduko dizkiegu. Gala amaitzen denean, inbertitzaileekin hitz egingo dugu, eta gustukoenak eta errentagarritasun handiagoa dituztenekin geratuko gara.



- Diru gehiago beharko bagenu, bankuan **mailegu** bat eskatuko genuke, dirua falta zaigulako. Eta bizikletak irabaziak ematen dizkigunean, itzuli egingo genuke.



- **Sozio** gehiago kontratatzea ere pentsatu dugu, proiektuan dirua inbertitzeaz gain, bizikletari buruzko ideia eta ikuspegi berriak eta enpresa bat aurrera ateratzeko moduari buruzko ezagutza gehiago emango dizkigutenak.



- **Aurrezkiak**. Taldeko 4 bazkideak, gure aurrezkietatik ateratako diruaren zati bera jarriko dugu. Gure negozioa ondo doanean, berriro berreskuratuko dugu.



- Beren logoa gure bizikletan ateratzea nahi duten enpresekin **elkarlanean** aritzea. Horrela, publizitatea egingo diegu eta dirua emango digute. Ondo legoke markak kirolekoak izatea, hau da, nike, adidas...

